

AMAIA ALONSO SANCHEZ

«Orain Senegalen aurkituko dudana gogorragoa izanen dela badakit»

Neska azal zuri, bihotz beltza. Halakoa da Amaia “kañajora”.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Lanbidez hezitzailea zara. Zertan aritzen zara zehazki?

Azken lau urteotan kultura eta adin arteko ekintza hezitzaileak sustatzea da nire eginbeharra. Orain bereziki sexualitate eta drogen prebentzio programetan murgilduta nabil, bai familietan baita ikastetxeetan ere. Horretaz gain Esteribarren animatzaile sozio-kultural gisa aritzen naiz eta horrek jende askorekin egoteko aukera ematen dit.

Jendearekin konektatzeko erraztasuna duzu...

Bai, hori esaten dute. Eta egia esan bailara osoak ezagutzen nau. Sanferminetan, adibidez, kalean askotan oihukatzen didate “ei, Esteribar!”. Ez dakite nire izena edo nor naizen, baina badakite han ibiltzen naizela.

Zergatik hautatu zenuen lanbide hau?

Maite dudalako. Laguntza ematea barrutik sentitzen dudan beharra da. Gaztetatik euskara zerbitzuan, ludotekan... ahal nuen toki guztietan sartzan nintzen gauzak antolatzena. Komunitarioa den guztiak erakartzen nau. Jendea gustukoa dut. Kalean barna pasean nabilela, norbait eserita ikusi eta ez dakit zergatik, baina aldamenen jarri eta orduak egon naiteke berarekin solasean. Berdin hasten naiz hizketan kalean bizi den batekin edo adineko jendearekin. Gustatzen zait haien istorioak entzutea.

Eta Afrikarekiko maitasuna nondik datorkizu?

Txikitatik Afrikako zerbait ikusten nuenean barruan zimiko bat sentitzen nuen. Beltzak, ume txikiak... Duela zenbait urte erretzeari utzi nion eta tabakoan gastatzen ez nuen

dirua aurrezten hasi nintzen bidaiak egiteko. Halako batean mutil-ohiak eta biok interneten ikusi genuen Dakarrerako hegazkin txartel merke bat eta une horretantxe bertantxe hartu genuen. Joan baino lehen harremantant jarri ginen hango eskola batekin. Esan genien eskolarako material pixka bat eramane nahi geniela eta ea posible ote zen han lo egiteko tokitxo bat aurkitzea. Egia esan oso ongi hartu zuten proposamena eta bikain tratatu gintuzten. Hara iritsita, hegazkineko atea irekitzean hango airea arnastea ikaragarria izan zen. Barrezka ematen nuen egun osoa. Hogeit bat egun izan ginen Senegalen barrera bidaiatzen.

Hegoaldean dagoen Cassamance eskualdeko amaetxe batean hiru neska euskaldun ezagutu nituen, oso jatorrak. Erizainak dira eta urtero joaten dira hiru hilabetez lan egitera. Haiekin eskualde zoragarri hau ezagutu nuen. Oso ederra eta aberatsa da, natura oso oparoa delako. Eurria egiten du, arroza, baratzeak, arrainak eta animaliak badira. Oso erakargarria da, baina nik uste dut nire lana toki

NORTASUN AGIRIA

Amaia Alonso Sánchez (Burlata, 1978ko ekainak 8). Ofizioz gizarte hezitzailea. Uharte eta Esteribarko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatean ari da lanean. Duela sei urte Senegal ezagutu eta liluratuta eta hunkituta gelditu zen. Geroztik hanka bat hemen eta bestea han dituela bizi da. Hango zenbait amaetxe eta eskolatan ibiltzen da lanean, baina bereziki Talibés kaleko haur eskaleekin. Gaur egun Talibés Fundazioko koordinatzailea da Euskal Herrian.





Elkartea lagundu nahi izanez gero, 650 716 430 telefonora deitu edo www.fundaciotalibes.org webgunera sar zaitezke.

pobreetan dagoela, horregatik Cassamancera soilik bisitan joaten naiz noiz edo noiz.

Aurkitu zenuena uste bezalakoa izan zen?

Ez nekien zehatz-mehatz zer aurkituko nuen. Senegalek eskualde asko ditu eta batzuk oso txiroak dira, baina ez dago gerra egoera eten-gabea, Etiopian edo Somaliaren bezala. Senegal, berez, oso alaia da. Teranga herria deitzen diote, hau da, *barrera* edo *ongi etorriaren herria*. Eta egia da, harrigarria da nola hartzen zaituzten toki guztietan. Baina aldi berean, oso tristea eta gogorra da ikustea nola jokutzen duten han zuri askok. *Tubap* deitzen diete eta mundu guztiak zerbait eskatzen die: goxokiak, Bic... Beti eskean. Lehen bidaian gaizki pasatu nuen. Boligrafo batzuk eraman genituen jendeari emateko eta egun batez atera genituen haur batzuei eskaintzeko. Bizpahiru haur zeuden soilik, baina boligrafoak atera eta segundo batzuetara ehunka umez inguraturik geunden, eskuetatik dena kendu nahian. Min fisikoa eta batez ere mina bihotzean sentitu nuen. Hori da mende luzeetan horrela jokatzearen ondorioz lortu duguna. Eta tamalez askotan ikusten da, adibidez, turista taldeek gozokiak atera eta lurrera botatzen dituzte hurrek harrapa ditzaten. Batzuetan iskanbilak izaten ditut zuriekin. Horrela min handia egiten diozu herri bati, eskale bihurtzen duzula. Baina zuri askori botere sentsazio hori gustatzen zaie. Sexuarekin berdin. Emakume heldu asko ikusten da gaztetxoekin, pederastia oso zabaldua dago, putetxe pila... 12 urteko neskato batek perfume pototo txiki baten truke nahi duzuna egiten du.

Nik beste modu batez jokatzeko ikasi dut. Ez dut ezer eramaten aldean. Ezta dirurik ere. Eman beharreko laguntza ematen diot eman behar diodanari, hau da, eskolako zuzendariari edo toki bateko arduradunari, behar den moduan eta berme guztiarekin. Gai-

Kañajora

“Hala deitzen didate diola hizkuntzan. Horrek esan nahi du beti harat-honat dabilen pertsona, ipurterrea, dena ikusi nahi duena... Horrela esaten didate eta asko gustatzen zait. Niretzako izen perfektua da”.

nerakoan ni han oin beltz bat besterik ez naiz. Ikusten naute haiekin lapikotik jaten, lurrean eserita, ilar pote batekin dutxatzen, putzutik ura ateratzen... Orduan zer eskatuko didate? Beraiei nire presentzia gustatzen zaie eta esaten didate: “Amaia, zu ez zara *tubap*”. Hori esaten didatenean oso harro sentitzen naiz. Hunkigarria da.

Zer da Europa haientzat?

Altxor kutxa bat. Senegaldar pila bat dago hemen eta diru asko bidali izan dute, orain arte bederen. Familia batean kide bat Europar izatea gerta dakiekeen gauzarik onena da, bai ekonomikoki baita prestigioaren aldetik ere. Baina hona etorrita izugarri aldatzen dira. Gure sistema honetan murgildu eta kontsumitzaile huts bihurtzen dira. Askotan hangoei esaten diete hemen oso ongi bizi direla, Messiren edo Ronaldinhoren lagunak direla... Handinahikeriatan aritzen dira maiz. Nik maite ditut senegaldarrak Senegalen.

Zer galtzen dute hona etortzean?

Alaitasuna, klima, janaria, familia, erlijioa, kultura... Bat-batean dena galtzen dute. Aldaketa ikaragarria da. Badira ere hemengo kulturarekiko eta euskararekiko interes handia dutenak. Sakanan badira batzuk euskaraz hitz egiten dutenak, eta ni maiteminduta gelditzen naiz haiekin. Beren helburu nagusia, oro har, lan egitea eta dirua irabaztea da.

Hemengo senegaldarrekin harremanik baduzu?

Bai, asko. Wolof ikasten ari naiz haiekin. Hurbildu eta galdetzen diet nola esaten diren gauzak.

Ez zaizu zaila egiten haien ohitura zenbait ulertzea, poligamia esate baterako?

Bai. Han familiekin bizi naiz, haien etxeetan, eta denbora gehiena gizonaren bi edo hiru

emazteekin eta haien haur guztiekin egoten naiz. Askok hitz egiten dut emakumeekin gai hauetaz. Galdetzen diet ea zer sentitzen duten egoera horretan eta esaten didate hobe dela horrela, modu honetara laguntza dutelako. Emakumeek ikaragarritzko lana dute etxean: jatekoa prestatu, haurrak zaindu, garbiketa, ura ekarri, erosketak egin, animaliak zaindu eta abar, eta gainera etxea beti jendez beteta egoten da, ilobak, lehengusuak... etortzen direlako. Emakumeak beti daude *“fatigüé, fatigüé”*. Gizona beste emakume batekin ezkontzen bada, beste emakume bat egonen da etxeko lan guztia aurrera ateratzeko. Batzuetan beraien artean tentsioa egon daiteke, baina, oro har, sistema praktikoa da lana banatzeko eta baita gizonaren sexu beharrak asetzeko ere.



Eta gizonak zer egiten dute?

Arrantzaleak badira itsasora ateratzen dira, bestela, gainerakoan, oso lan gutxi dago. Galdetuz gero denek esaten dizute saltzaileak direla. Edozein gauza saltzen dute merkatuetan: arropa, fruta, ordezkoko hortzak, kableak... Den-dena jartzen dute lurreen eta horrela ematen dute eguna. Hemen mundu guztia da saltzaile, baina nire galdera da: nork erosten du? Ez da inor ikusten erosten.

Familia plangintzaz hitz egiten diezu?

Amaetxean prebentzio tailerrak eta familia plangintzaz hitz egiten diet. Emakumeek sei, zazpi edo haur gehiago izaten dituzte batez beste. Kasu askotan ez dakite zenbat urte duten ezta zein egunetan bizi diren ere. Ez dute egutegirik. Askok analfabetoak dira. Kondoiak erosteko dirurik ez dute eta gainera gizonak ez zaie gustatzen, horregatik oso gutxi erabiltzen dira. Batzuek pilulak hartzen dituzte baina gordeka, gizonak jakin gabe. Emakume gazte batzuek ikusten dute zerbaiteko beharra dagoela kontu horretan, baina beste askok ez.

Bizipoza

“Ni han oso ongi sentitzen naiz neure buruarekin. Ez da soilik laguntzea gustatzen zaidalako. Haiek laguntzen didate niri neure burua ezagutzen eta bakea sentitzen”.

Ablazioaz zer pentsatzen dute?

Ez da horretaz hitz egiten eta zuk galdetzen badiezu mesfidati agertzen dira. Nik uste dut barne-barnean badakitela hori gaizki dagoela. Ikusten dute nola neskek infekzioz beteak gelditzen diren, zeinen atrofia ikaragarriak sortarazten dituen, nola batzuk hiltzen diren, erditzean zenbat arazo izaten dituzten... Oso gogorra da. 4, 5 edo 6 urteko neskatilak egiten diete xafla ziztrin batekin. Toki batzuetan mozketak egin eta haurra zuhaitz baten azpian uzten dute zauria itxi arte. Gero eta gehiago emakumeak indartzen ari dira eta Senegalen, hirietan bereziki, ama berrien artean gauzak zertxobait aldatzen ari dira. Nik uste dut gure zeregina dela azaltzea zer den hori eta zer ondorio ekartzen dituen. Hori dena haiei jakinaraztea. Horretan oso baliagarria da niretzat argazkiak erabiltzea. Emakumeentzat oso zaila da familia eta herriaren aurka jartzea. Presioa itzela da.

ZATOZ!

ABENDUAREN 6, 7, 8

ostirala: 11:00-20:00 / larunbata: 11:00-21:00 / igandea: 11:00-20:00.
sarrera: 3€ / 12 urte arte dohain

EUSKAL KOSTALDEKO GABONETAKO AZOKA

AURTEN, BISITARIEN ARTEAN AUTO BATEN ZOZKETA!

Babeslea:

Gaura

Zure kontzesionarioa Iruñen

ANTOLATZAILE

Iparalde hiribidea, 43
20302 Iruñ-Gipuzkoa
+34 943 66 77 88
www.ficoba.org

#FeriaNavidad2013

Gero eta okerrago

“Gezurra badirudi ere, Senegalen dagoen janari guztia kanpotik ekarria da. Senegalek mangoak besterik ez ditu. Hemengo krisia dela-eta dena okerrera doa: hemengo senegaldarrek orain ez dute lehen bezainbeste dirurik bidaltzeko eta, honetaz gain, garapenerako laguntzak murrizten ari dira. Proiektu asko bertan behera gelditu dira. GKE asko eta fundazio asko joaten ari dira Senegaletik eta Afrika osotik. Orain Senegalen aurkituko dudana gogorragoa izanen dela badakit”.



Oso emakume indartsua eta autoestimu handikoa izan behar duzu horri buelta emateko. Oso-oso zaila da.

Zer gehiago lantzen duzue?

Prebentzio alorrean hazteria eta larru azalaren gaixotasunak ditugu jopuntuan. Hazteria oso zabaldua dago zikinkeria ikaragarria delako. Gorputz osoan izaten dute, baita jaioberriek ere. Zikinkeriaz inguratutik bizi dira, ez dute arropa oso maiz garbitzen eta dena jaten dute eskuz. Koilararen erabilera zabaldu nahi dugu, aurrerapauso garrantzitsua litzateke.

Talibés Fundazioaren Euskal Herriko koordinatzailea zara orain. Nortzuk dira haur horiek?

Senegaleko hirietako toki txiroenetan bizi diren haur eskaleak dira. Familia pobreek jatekorik ez dutenean haurrak koran eskola batera eramaten dituzte eta han gelditzen dira, arabou edo irakasle baten agindupean. 4 urtetik gorako haurtxo eta gaztetxoak dira. Marabouek haurrak bidaltzen dituzte arroza, azukrea eta dirua eskatzera kaleetara. Han izaten dira egunean hamabi orduz eta eskolara itzultzean diru edo arroz gutxi eramanez gero izugarritzko jipoi eta tratu txarrak jasotzen dituzte. Gainera haur hauek mota guztietako lan eta gehiegikerietarako alokatzen dituzte. Ume esklaboak dira. Senegal talibez beteta dago. 50.000 baino gehiago omen dira, gero eta gehiago, orain Malitik asko iristen ari direlako ihesean. Egoera gero eta latzagoa da. Hemen krisia dagoenez han izugarri sentitu dute hori. Eguna haiekin ematen dut eta ahal badut haien eskoletara sartzen naiz, haien marabouekin hitz egitera. Haiei eta agintariei esaten diegu haurrak tratatzeko modu hori ez dela egokia. Ikusarazten diegu errealitate hori aldatu behar dutela eta horrenbeste miresten dituzten zuriak ez dutela halako jokamolderik onartzen. Baina hori da haiek betidanik ezagutu duten bizi-modua. Nik badut lagun min bat, hemen Burlatan ezagutua, talibea izan dena. Aitak

esaten zion talibe bidaltzen zuela bizitzaren gogortasuna ezagutu zezan. Gainera haur hauek helduaroan marabou egiten dira, gurpil-zoro hori betiketuz.

Kanpaina berri bat egiten ari zarete eta abenduan abiatuko zara berriro. Zer helburu dituzu oraingo honetan?

Hiru proiektu ditugu oraingo bidaia honetan: herri txiki batean amaetxe berri bat eraiki dugu eta orain materialak eta botikak eramanez ditugu hornitzeko. Horretaz gain Erronkariko eskolako familiek 1.000 euro eman dizkigute herri txiki bateko eskolako teilatua konpontzeko. Eta hirugarren helburua talibe haurrei arropa, eskola materiala eta haien bizitokietarako gauza batzuk eramatea da. Dirua behar dugu, edukiontzi bakoitza hara eramate hutsak 3.000 euro balio du-eta. Oso pozik nago orain nirekin Ilurdotz eta Zubiriko 78 urteko bi emakume etorriko direlako. Udaberrian beste bidaia bat egin nahi dut, gauza gehiago eramateko, eta horretarako bi gazte nirekin etortzera animatu dira jada.

Zer ekarriko zenuke Senegaldik hona?

Jendearenganako gertutasuna. Hemen mikaztuta, ozpinduta bizi gara. Han dena da “*ze pa gra*” (ez da deus gertatzen, dena konpon daiteke). Elkartasun hori ez dago hemen. Hemen bakarrik bizi naiz eta giltzez ixten dut atea. Han ez dituzte etxeak ixten. Etxe ezezagun batera sartu eta egun osoa eman dezakezu han, komuna erabili, ohe batean etzan, tea hartu beraiekin... Eta irribarrea, alaitasuna, noski. Beste gauza bat asko gustatzen zaidana da ez direla besteengatik gaizki esaka aritzen inoiz. Oso gaizki ikusia dago hori. Nik, egia esan, asko ikasten dut beraiegangatik eta askotan hemen pertsona arraroa, bitxia sentitzen naiz. Beti zoriontsu egon nahi izatea leporatzen didate, zerbait txarra balitz bezala. Arraroa naiz eta harro nago. ■

